


10 langile edo gehiagoko euskal enpresen %30,7k berrikuntza teknologikoa egin zuen 2011n

Berrikuntza ez-teknologikoa ere kontuan hartuta, %37,8 da portzentajea

2011n, berrikuntza teknologikoa egindako enpresen portzentajea %12,3 izan zen; %30,7 10 langile baino gehiagokoentzat, Eustaten datuen arabera. Euskal AEko enpresek 2.675,7 milioiko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan; aurreko urtearen aldean %3,6 gehiago. Gastu hori BPGren %4,04 da.

Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (%51,1); makinak eta ekipoa erosteko gastua (%20,3); kanpoko I+Gren erosketa %13,4. Gainerako jardueretarako %15,2 geratzen da.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera. 2011 urtea. (%)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

2009-2011 aldian berrikuntza teknologikoa eginiko enpresak guztien %12,3 izan ziren Euskal AEn; aurreko aldian baino 1,5 ehuneko puntu gutxiago. 21.417 enpresa. **Enpresa berritzaileak hartzen dira merkaturatzea produktu berriren bat** (ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produkturen bat sartu dutenak (%6,4, 2011n), **edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat** edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%10,6).

1. taula: Berrikuntza teknologikoa egindako enpresak eta gastua aldiaren arabera

Unitatea: milioi eurotan eta enpresen %tan

	2001-2003	2002-2004	2003-2005	2004-2006	2005-2007	2006-2008	2007-2009	2008-2010	2009-2011
Euskal AE	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1	15,0	14,5	13,8	12,3
Lurralde historikoa									
Araba/Álava	12,8	13,6	15,1	15,7	15,9	13,7	12,9	13,4	11,7
Bizkaia	16,0	17,5	17,6	17,1	16,7	15,5	16,3	14,2	11,1
Gipuzkoa	18,7	17,0	16,5	16,3	15,1	14,7	12,6	13,3	14,5
Berrikuntzako gastua	1.836,0	2.010,2	2.161,7	2.352,2	2.609,9	2.782,0	2.753,4	2.581,9	2.675,7
10 langile edo gehiago	32,1	31,9	33,3	32,7	32,0	31,5	29,8	30,1	30,7
Lurralde historikoa									
Araba/Álava	29,7	31,9	33,8	34,3	30,1	29,9	30,4	32,3	33,2
Bizkaia	30,9	30,1	32,4	30,5	29,9	29,4	27,9	25,6	28,2
Gipuzkoa	35,1	34,6	34,3	35,3	36,2	35,4	32,2	35,8	33,2
Berrikuntzako gastua	1.472,6	1.463,6	1.677,8	1.829,7	2.030,0	2.193,9	2.219,9	2.159,5	2.214,0

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Ehuneko horiek %30,7raino iristen dira, 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta, aurreko urtean baino sei hamarren gehiago. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %19,8 izan dira, eta prozesua eraberritu dutenak %23,1.

Berrikuntza-intentsitatea, zeina baita berrikuntza-jardueren gastua negozio-zifrari buruz, %1,62 izan zen; barne I+Gren intentsitatea, %0,83. 10 langile edo gehiagokoetan, %2,08 eta %1,20.

2 Taula: Berrikuntza teknologikoaren eta barruko I+Garen intentsitatea, lurraldea eta tamaina kontuan hartuta. Euskal AE. 2011. (%)

	Guztira		10 langileko eta gehiago	
	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)
Enpresak guztira				
Euskal AE	1,62	0,83	2,08	1,20
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	1,96	0,65	2,36	0,90
Bizkaia	1,52	0,79	1,82	1,12
Gipuzkoa	1,63	0,99	2,41	1,53
Jarduera berritzaileak dituzten enpresak				
Euskal AE	4,32	2,21	4,07	2,35
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	5,42	1,80	4,85	1,85
Bizkaia	3,94	2,06	3,51	2,17
Gipuzkoa	4,43	2,69	4,71	2,99
I+G jarduerak dituzten enpresak				
Euskal AE	5,81	3,87	5,41	3,70
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	5,24	2,43	5,16	2,32
Bizkaia	5,91	4,16	5,35	4,03
Gipuzkoa	6,02	4,34	5,65	4,09

(1) Berrikuntza maila: (berrikuntzako gastuak/negozio kopurua)*100

(2) Barruko I+G maila: (barruko I+Gko gastuak/negozio kopurua)*100

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Enpresa berritzaileen %28,4k finantzaketa publikoa jasotzen du.

Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %21,1ekin. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, %53,4k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena. Zehazki, enpresen %44,5.

3. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera 2009-2011. (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasozen dute hauetatik	28,4	53,4
Tokiko administrazioak	3,8	7,6
Foru aldundiak	10,2	12,8
Eusko Jaurlaritza	21,1	44,5
Administrazio zentrala	10,0	19,9
Europar Batasuna	4,9	8,0

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

I+Gren eta berrikuntza jardueren gaineko lankidetzaz, establezimendu berritzaileen %12,5ek hitzarmenen bat sinatu du enpresa edo erakundeekin 2009-2011 aldian. Ehuneko hori %29,6 da 10 langile baino gehiagoko establezimenduetan.

Tamaina horretako establezimenduetan, lankidetzak honako hauekin gauzatu da: zentro teknologikoekin (%65,6); enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (%59,8); unibertsitate nahiz goi mailako irakaskuntzako beste institutu batzuekin (%54,2); ekipo, material eta abarren hornitzaileekin (%53,5); bezeroekin (%51,4),

Enpresa berritzaileen %80,3k uste du berrikuntzak eragin positiboa duela

%79,1ek uste du berrikuntzak eragin positiboa duela produktuei buruz, ondasunak zein zerbitzuak izan; %63,6k barne-prozesuei buruz; %43k bestelakoei buruz, esaterako ingurumen inpaktu txikiagoa edo osasun hobea langileentzat.

10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileetan, %86,7 uste du eragin positiboa duela; beste portzentajeak %83, %70,1 eta %50 dira.

4 Taula: Berrikuntza teknologikoaren eraginak enpresa berritzaileetan. 2009-2011 (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langileko eta gehiago
Berrikuntza teknologikoaren ondorioak	80,3	86,7
Produktuen gaineko ondorioak	79,1	83,0
.-Ondasun edo zerbitzuen aukera zabalagoa	50,3	61,7
.-Produktu edo prozesu zaharkituen ordezkapena	56,1	56,8
.-Merkatu berrietan sartzea	28,6	45,3
.-Merkatu-kuota handiagoa	33,4	42,9
.-Ondasunen edo zerbitzuen kalitate handiagoa	68,5	71,8
Prozesuen gaineko ondorioak	63,6	70,1
.-Malgutasun handiagoa ekoizpenean edo zerbitzuak ematean	48,6	56,4
.-Ekoizteko edo zerbitzuak emateko ahalmen handiagoa	53,1	56,7
.-Lan-kostu txikiagoak ekoiztu den unitate bakoitzeko	33,7	35,5
.-Material gutxiago ekoiztu den unitate bakoitzeko	24,6	25,7
.-Energia gutxiago ekoiztu den unitate bakoitzeko	23,4	29,9
Bestelako ondorioak	43,0	50,0
.-Ingurumen-eragin txikiagoa	31,4	36,4
.-Langileen osasunaren eta segurtasunaren areagotzea	24,5	34,1
.-Arau-betekizunen betetzea	33,7	40,6

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak baino gehiagok

Enpresen %57,1ek uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, gehiegizko arrisku ekonomikoak (%41,8), berrikuntzen kostu handiegia (%41,3), eta finantza-iturri falta (%40,3) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 langile baino gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak %68,6 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

5. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2009-2011. (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	57,1	68,6
Faktore ekonomikoak:	50,2	59,6
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	41,8	44,4
.- Berrikuntzako kostu handiak	41,3	51,5
.- Finantzaketa-iturririk ez	40,3	46,0
Barruko faktoreak:	31,6	44,7
.- Erakundearen zorrozatasunak	16,4	25,0
.- Langile gaiturik ez	20,5	26,8
.- Teknologiari buruzko informazioz ez	20,2	24,0
.- Merkatuei buruzko informazioz ez	18,8	22,5
Beste faktore batzuk:	32,3	38,5
.- Arauek malgutasun urria dute	20,5	24,6
.- Bezeroek sentikortasunik ez	23,7	25,8
.- Bestelakoak	3,7	3,8

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 langile baino gehiagoko enpresa berritzaileen %27,2k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du asmazio edo berrikuntzetarako.

2009-2011 aldian, aipatzekoa da 10 langile baino gehiagoko enpresa berritzaileen %27,2k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili duela. Aldi horretan, enpresen %10,3k eskatu zuen patenteren bat bere establezimenduetan egindako asmakuntza edo berrikuntza babesteko, eta enpresen %13,8k patenteren bat zuen indarrean 2011. urtearen amaieran. Bestelako babes-metodoen gainean, 10 langile baino gehiagoko enpresa berritzaileen %21,6k erabili du baten bat aipatu aldian. Azken horien artean nabarmentzen dira marken erregistroa (%19,2) eta marrazki edo ereduen erregistroa (%11,3).

2009-2011 aldian Euskal AEko enpresen %37,8k berrikuntza –teknologikoa edo bestelakoa- egin zuten

Euskal AEn, kontuan hartzen bada berrikuntza ez-teknologikoa, enpresen %17,8 izan zen berritzaile –teknologian edo beste zerbaitean- 2009/2011 aldian. Portzentaje hori honela osatzen da: berrikuntza teknologikoa (%12,3) eta ez-teknologikoa (enpresen %10,7). 10 langile eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuz, enpresa berritzaileak %37,8 dira (berrikuntza teknologikoa edo ez-teknologikoa).

Berrikuntza ez-teknologikoa antolaketa- edo merkaturatze-berrikuntzek osatzen dute.

Antolaketa-berrikuntza enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan; euskal enpresen %7,4 egiten dute. **Merkaturatzearena** lehen erabili ez diren edo aurrekoak bezalakoak ez diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da; Erkidegoko enpresen %6,7k egiten dute.

6. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2009-2011

Unitatea: establezimenduen ehunekoa

Euskal AE	Berrikuntza ez-teknologiko mota		Enpresa berritzaile ez-teknologikoak	Enpresa berritzaile teknologikoak (1)	Enpresa berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)	Enpresa berritzaile EIN (2) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)
	antolamenduan	merkaturatzean				
Guztira	7,4	6,7	10,7	12,3	17,8	18,3
10 enplegatu eta gehiago	21,1	10,7	23,7	30,8	37,8	39,8

(1) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak ez daude barne.

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 langile edo gehiagokoetan, edozein motatako berrikuntza egiten dutenak %37,8 izan ziren aldi horretan.

Kopuru hori horrela osatzen da: berrikuntza teknologikoa enpresen %30,7k; ez-teknologikoa %23,7k.

Berrikuntza ez-teknologikoa, enpresa-tamaina horretarako, antolamenduan datza %21,1ean eta merkaturatzean %10,7an.

Aribideko edo huts egindako berrikuntza duten enpresak ere kontuan hartuz (EIN izenekoak), 10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileak %39,8 dira.

Ohar metodologikoa: Berrikuntza Teknologikoko Inkesta BTI 2009k barne du 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-2009)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua